

2.BALIO PROPOSAMENA

Kutsadura murrizten saiatzen gara proiektu berri honen bidez.

Proiektu honen ideiak berak bereizten gaitu gainerakoetatik

Gure etorkizuna hobetzen saiatzen gara, horretarako bizi-kalitatea hobetu behar da. Gizakiak berak eragiten digu kalterik handiena, egunetik egunera gehiago kutsatzen dugu eta ez gara konturatzen gure planetari egiten diogun kalteaz; horregatik, gure akatsak zuzendu behar ditugu, kutsadura murriztuz.

Horretarako sortu dugu proiektu hau, funtzionatzeko energia berriztagarriaz (eguzki-plakak) bakarrik elikatzen dena, eta teknologia berriekin funtzionatzen duena.

Diseinua paisaia suntsi ez dezan egin da, mendietan horrelako instalazioak aurkitzea desatsegina izango bailitzateke, horregatik modu erraz eta garbian diseinatuta dago.

Gure ustez, prezioa komenigarria da, kalitatearen eta prezioaren arteko erlazioa bidezkoa delako, eta etorkizunari begira inbertsio ona delako.

Proiektu honen erabilera, oso konplexua dirudien arren, ulertu ondoren oso erraza da, erosketa eta instalazioarekin ikastaro bat oparitzen baitiogu behar duen orori. Baina, bestela, gure instalazio-enpresa erabilgarri egongo da programatzeko.

Bezeroak guri ordaintzeko prest egongo dira, gure zerbitzuaren abantailak azalduko dizkiogulako: atmosferako karbono dioxidoa eta oxigenoa aire-araztegi batean bihurtuko dugula eta ikusten dutenean gure zerbitzua erakargarria dela arrazoi gehiago izango dituzte ordaintzeko. Gainera, zerbitzu hau ingurunea osasun mantentzeko eta hobetzeko balio du eta hau gente askori interesgarria eta garrantzitsua irudituko zaie.